



Bertsolari Txapelketa

Euskara plazara atera nahi dute Oiongo eta Mauleko saioekin ◦ 32-33



Sagardoa

Sagarretik sagardorako bidaia Astigarragan ◦ GEHIGARRIA

Auzitegi Nazionala hasi da Del Rioren epaia aplikatzen, eta Piriz aske utzi du

Auzitegi Nazionalak libre utzi du Juan Manuel Lopez Piriz preso, kartzelan ia 30 urte egin eta gero, Ines del Rioren epaiaren ostean aztertu behar izan duen lehen helegitean

Auzitegi Nazionalak ostiralero aztertuko ditu helegiteak, azaroaren 8an hasita; Auzitegi Konstituzionalak eta Gorenak beren esku dituzten helegiteez erabakiko dute ◦ 2-3



GUILLAUME MEZIAT

→ **Hamlet, euskaraz eta Euskal Herrian.** Zer gertatuko litzateke Hamlet gaur egungo euskalduna balitz? Galdera hori abiapuntu hartuta, Shakespeareren klasikoa taularatuko dute Le Petit Theatre de Paine konpainiak, Artedrama plataformak eta Dejabu pampina laborategiak, Ximon Fuchsek zuzenduta. Euskarara eta Euskal Herrira egokitu dute obra. Azaroaren 1ean estreinatuko dute, Luhuson (Lapurdi). ◦ 30

Lapurdikoa AHTa egiteko dirua eskatzen hasi da berriro RFF herri elkargoek

Kontseilu Nagusiak eta herri elkargoek ordaintzeari utzi zioten, Frantziak proiektua atzeratu ondoren. 300 milioi euro eskatu dizkie orain ◦ 8

Eurodiputatuak Washingtonera joango dira, AEBen espioitza ikertzera

Europako Batasuneko agintarientzat «onartezina» da AEBek haiek masiboki zelatzea, baina ez dute presio edo zigor neurririk onartu ◦ 18

Beskoitzek lurra utzi dio Seaskari ikastola egiteko ◦ 8

↓ Ordu aldaketa



LAMAÑO-ETXEBERRI



Goiko auzoa
943-763 506 / 657 795 362
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
maitearis7@gmail.com
www.nekatur.net/lamaino

Hamlet euskalduna balitz



Shakespearen testuak gaur egungo Euskal Herriarekin dituen oihartzun landu dituzte taldekoek. GUILLAUME MEZIAT

Le Petit Theatre de Pain, Artedrama eta Dejabu Konpainiak 'Hamlet' antzerkia estreinatuko dute azaroaren lehenean

Gaur egun eta Euskal Herrian kokatu dute, nahiz eta testuan Danimarka aipatu

Nora Arbelbide Luhuso

Teoriak ez ditu eskas Shakespeareren *Hamlet*-ek. Freud, Luther edo Lenin izan dira teorizatzaileen artean. Eta orain, bat gehiago izanen da. Luhusotik datorren teoria, Le Petit Theatre de Pain, Artedrama eta Dejabu Konpainiaren eskutik. Azaroaren 1ean bertako Harri Xuri antzokian estreinatuko dute beren *Hamlet* 20:30ean. Eta ondotik badituzte beste anitz egun finkatuak, guztiak www.hamlet.kz gunean sartuak.

«Gure teoria izan da errate: eta Hamlet balitz gaur egungo euskaldun bat? Zer oihartzun du gure egoerarekiko?», taula zuzendari lanetan aritu den Ximun Fuchsek azaldurik. Euskaraz eta euskaldunek emana dela, horrek errazten du ere. Xabier Mendiguren idazleari galdegin diote euskarazteaz testua, espresuki antzerkiarentzat. Taula zuzendari gisa, Fuchsen lana, antzerkia «euskaldun gisa» begiratzea izan da: «He-

mengoia izatea dudarik gabe. Nahiz eta Danimarka aipatu testuan. Pentsatzea: «Ez ez, hori hemengoia da, eta orain da. Ezagutzen dut, familiakoa da». Aurkitu oihartzunen artean, *Hamlet*-en agertzen den gerla, justizia gosea, boterejokoak eta belaunaldien artekoak, herentzia kontuak entzuten ahaliko dira berenean ere: «Belaunaldi bakoitzak herentzian badiu aitzinekoak utzitakoa, utzi mundu makurra. Eta belaunaldi bakoitzari dagokio horren zuzentzea. Nere aitatziren belaunaldia-rena izan zen gerla egitea. Gurasoena 1968a, edo Aljeriako gerla, edo frankismotik ateratzea. Eta guri dagokigu, behar bada, krisia kudeatzea edo hortik ateratzea».

Oihartzunak eta gatazkak. Antzerkian aurkitu daitezkeen gatazkei lotu zaizkie taldekoak. Ekintzaren gatazkari, adibidez: «Zer erran nahi du ekintzara pasatzeak? Munduan injustizia anitz bada, ados. Ekintzara pasatzen naiz, bai ala ez? Justizia egiten dut nihaurek ala uzten diot botere ba-



Shakespeareren galderen haritik doa antzerkia. GUILLAUME MEZIAT

ti, nahiz eta jakin botere horren justizia ez dela justua? Hori, eguneroko geure buruari pausarazten ahal diogun galdera bat da». Beste gatazka eromenari lotua da: «Zerk eramaten nau eromenera? Nik edo munduak? Zer nahi dut? Ideia handiak eraman ala bizi normal bat? Ezin dut bizi normalik eraman? Eta gero bukaeran, erraten duena da, edozein gisaz, egiten dugu ahal duguna, baina denek bukatuko dugu hauts eta errauts. Puntu».

Galderak, oihartzunak, gatazkak, baina erantzun zehatzik eman gabe. Hala nahi dute taldekoek, William Shakespearek berak ematen ez dituen bezala: «Haren arte handia da galderak nola pausatzen dituen. Erantzunak

ematea beti labur da. Erraiten duela: 'Izan ala ez izan hau da galdera', esplikatzeko badugu ondorekin zerbait, ahula da artistikoki. Ematen ahal ditugu bideak galderak pausatzeko moldean».

Baliatzea *Hamlet*-ek utzi «enigma». Denetarik erran daitekeela *Hamlet*-en bidez: «Osorik muntatzen bada *Hamlet* sei oren irauten du. Ordu erdi baten buruan ulertu dugu zer den erronka. Eta gainerateko denbora osoa pasatzen dugu pentsatzen: zertarako ez da ekintzara pasatzen».

Hamleten osabak hil du bere aita, boterea hartu, eta ezkontzen da bere amarekin. Aitaren espetroak eskatzen dio bere hilketa mendekatzea. Hori fite ulertzen da. Baina gero, «oihartzun gara

pixka bat konplikatua dela. Aita ez zela aingeru bat. Diktadore bat zela, arrunt eroa».

Hamlet-en inguruko teorien artean badaude batzuk diotenak Hamlet emazte bat zela, bestek homosexuala. Batzuek diote protestantea zela, badira diotenak judua zela, baita komunista ere. «Aita hil dute pozoia bat sartuz belarritik. Shakespeareren garaian ez zen horrelako pozoirik. Hori asmatu du. Zertarako? Belarritik



Nahi dugu publikoak pentsatzea: «Hori hemengoia da, eta orain da. Familiakoa da»

«Gure artean, publikoarekin, zerbait pasatu zen, eta merezi zuen segitzea abentura»

XIMUN FUCHS
Taula zuzendaria

sartzen dena da hitza. Orduan, hitzen pozoia aipatu nahi izan da memento horretan, behar bada. Egia erran ote diote? Zer egia?». Horiek erranik, Fuchsek gehitu du antzerkia emozio guztietatik pasatzen dela, eta nahiz eta *Hamlet*-ek izan halako irudi ilun bat, umorea ere badela, baita zenbait sorpresa ere.

Antzerkilari guztien amets

Enigmaz enigma, taldekoek argi zuten antzerki hori eman nahi zutela, eta elkarrekin. Hainbat arrazoiaren artean, artistikoki, aktore edo artista gisa memento batean, *Hamlet* eta gisako obrak funtsezkoak ikusten dituztelako: «Obrak handiek laguntzen gaituzte aitzintzen. Biolinista batek Bachen zati batzuk eman behar dituen bezala. Kantari batentzat *La Traviata* behin ematea amets bat den bezala, *Hamlet* amets bat da. Plazer bat eta desafio bat ere euskarari begira». Eta Le Petit Theatre de Pain, Artedrama eta Dejabu Konpainiak osatu hirukotea aitzinatu nahian dago. Elkarrekin eman lehen antzerkia, *Errautsak*, duela hiru urte eman zuten. Eta orduz geroztik, argizuten berriz bilduko zirela. Haien artean ongi pasatu izanaz baino gehiago: «Gure artean, publikoarekin, gure egiteko maneran zerbait pasatu zen, harrokeriarik gabe, eta abentura segitea merezi zuen». Fite hasi ziren pentsatzen zer egin. Baina: «Ez genuen egin nahi *Errautsak II*». Beste norabait joan nahi zuten. Eta laster agertu zitzaien *Hamlet*.